

375/2022 EBAZPENA, apirilaren 8koa, Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez onesten diren onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen osaera, Osakidetza- Euskal osasun zerbitzuko Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko Gernikako eta Bermeoko osasun mentaleko helduen zentroetako osasun mentaleko unitateburu bat hautatzeko egindako deialdian.

AURREKARIAK

Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko (BOMS) zuzendari gerentearen urriaren 20ko 766/2021 Ebazpenaren bidez, deialdi publikoa egin zen, osasun mentaleko unitateburu lanpostu bat betetzeko, lehiaketa-sistemaren bidez, BOMSeko Gernikako eta Bermeoko osasun mentaleko helduen zentroetan (EHAA, 12. zk., 2022ko urtarrilaren 19koa, eta BOE, 22. zk., 2022ko urtarrilaren 26koa).

Deialdian, 15 egun balioduneko epea ezarri zen eskabideak aurkezteko, ebazpena zegokien aldizkari ofizialetan azken aldiz argitaratuko zen egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, eta epe hori 2022ko otsailaren 16an amaitu zen.

BOMSeko zuzendari gerentearen martxoko 21eko 313/2022 Ebazpenaren bidez, onetsi zen prozesuan onartu eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda.

Horiek horrela, ebazpen honen bidez, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen izendapena argitaratzen dira.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendaren aurkako erreklamazioak aurkezteko epea amaitutakoan, BOMSeko zuzendari gerenteak onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onesteko ebazpena emango du, adierazita zein izan diren baztertzeko arrazoiak. Ondoren, ebazpena Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren web-orrian argitaratzeko agindua emango du.

Aurrekoarekin batera, argitaratu beharrekoa da Balorazio Batzordearen izendapena.

Horrenbestez, pertsonaleko alorrean indarrean dagoen legediak ematen dizkidan eskumenez baliaturik, eta Osakidetza Estatu Sozialak arautzen dituen 15.1 e) artikuluari jarraikiz (255/1997 Dekretua, azaroaren 11koa eta EHAA, 219. zk., azaroaren 14koa), lehiaketaren arauak betetzeko,


EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda onestea, BOMSeko Gernikako eta Bermeoko osasun mentaleko helduen zentroetako osasun mentaleko unitateburu lanpostua betetzeko deitutako lehiaketan. (I. eranskina).

Bigarrena.– Balorazio Batzordearen osaera onestea. (II. eranskina)


Hirugarrena.– Ebazpen hau Osakidetzaren web-orrian argitaratzea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkez dakiokete Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.



Osakidetza
Bilbon, 2022ko apirilaren 8an

Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea
Red de Salud Mental de Bizkaia



Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko zuzendari gerentea
Carlos Pereira Rodríguez

I. ERANSKINA

BOMS-EKO GERNIKAKO ETA BERMEOKO OSASUN MENTALEKO HELDUEN ZENTROETAKO OSASUN MENTALEKO UNITATEBURU LANPOSTUA

ONARTUEN ETA BAZTERTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA

Onartuen behin betiko zerrenda:

- Argiñe Mingo Idoyaga and.

Baztertuenak:

- Inor ez

II. ERANSKINA

BOMS-EKO GERNIKAKO ETA BERMEOKO OSASUN MENTALEKO HELDUEN ZENTROETAKO OSASUN MENTALEKO UNITATEBURU LANPOSTUA

BALORAZIO BATZORDEA

Batzordeburu

Titularra: José Ignacio Landaluze Lauzurica jn.
Ordezkoa: David Cantero González jn.

Lehen batzordekide

Titularra: Ana Bustinduy Bascaran and.
Ordezkoa: Víctor Bustamante Madariaga jn.

Bigarren batzordekide

Titularra: Juan Bosco Anguiano Jiménez jn.
Ordezkoa: Concepción Corral Blanco and.

Hirugarren batzordekide

Titularra: Izaskun Elortegi Kaiero and.
Ordezkoa: María Begoña Mendivil Eguiluz and.

Laugarren batzordekide

Titularra: Luis Pacheco Yañez jn.
Ordezkoa: Juan Medrano Albeniz jn.

Idazkari:

Titularra: María Urraza Bernaola and.
Ordezkoa: Miren Amaya de Allende Achalandabaso and.